

¿ZENBAT?

Ez dute gure baserritarrak, argi ta garbi beren erantzupena lenbizi-koan emango.

Galdeera bakoitzari, buruari atzegin ondoren, emango diote alako ez bai, ta ez ez, dan erantzuki margo gabia.

Aboan daukazkite beti: «izan liteke», «baliteke», «orche orchen» «an nunbait» eta beste orrelako zenbait itz ezer esan nai ez dutenak.

Orrelako itzen oso zaliak dira, baña zerbait erabaki lezatekenetatik itzul egiten dute.

Dotriña guziya buruz jakingo dute: bakar bakarrik, bai edo ez Kris-to'k erakusten duben bezela esatia, ez dute beñere ikasten.

Ori ez; ez dute berialakoan bai edo ez esango. Egingo dituzte milla bira ta aldakera bai edo ez bat ez esatearren.

Galdetu zayozute baserritar bateri ondo al dagon, eta naiz osasunez lertzeko zoriyan egon ez du «bai» esango. «Oyak uztutzen ditugu beintzat eta.....»; orrela esango dizute. Bai bat ez esate arren.

Guztiyan berdin dira.

Nere lagun Akilino'k esaten zizkiran, bein Done Martin'eren elei-zachora jua etorri bat egin zubeneko iñillubak.

Irten zan bada echetik, eta bide puskabat ibilli ondoren baserri pacharako baten aurrera irichi zan.

Ateetan zegoen baserritar bat abereentzako belarra sorotik ekarri berria oñetan zeukala. Gure Akilino'k agurtu ondoren galdetu zion:

—¿Ondo al nua emendik Done Martin'eren eleizara?

—Juan izan oi dira ortik bai. Juaten dira askotan. Ikusi izan ditugu beintzat.

—¿Beste bideren bat bai al da bada?

—Beste biderik ez da, ala nai bada; bañan, esan nai da, jua litekela, ala nai izan ezkero, beste lekuen batetik ere.

—Bai noski, badakigu Erroma'ra alde guzietatik iristen dala.

Eta alperrikako itz oyek guztiyak, lenbizikotik bai sendo bat ez esatia gatik.

—¿Zenbat denbora biar da, galdetu zuen ondoren, Akilino'k, ara irišteko?

—Orra gauza, batetan esan ezin litekena: ordu ta erdiyan juan izan dira, bostian ere bai.....

—Ta berrogeyan nai badute ere bai.

—Zure ibilkeran, iru bat ordu biarko dirala, iduritzen zait.

—¿Ta, nondik dakizu, nere ibilkera nolakua dan?

Ori guziya iru orduko bidia zala ez esate arren.

Alde egin zuben Aquilino'k baserri artatik, eta danba, danba, ordu-bete guchiyenaz ibilli zan beste nekazari batzuekin arkitu zan arteraño.

—¿Zenbat bide dago, emendik Done Martin'eren eleizachora? galdetu zien Akilino'k.

—¿Zer esango degu? Bidia..... asko esan biarko.

—¿Zenbat da bada, asko ori?

—Asko, osko, guchi baño geyago, esan biarko.

—Ichurak ala dira. ¿Baña zenbat?

—Zure ibilkeran, iru bat ordu biarko dira alde aldera.

—¿Guziyak alkar artu al dezute?

Ori esan eta bideari jarraitu zion berriro Akilino'k. Bañan etziran baserritar ayek azkenekuak izan iru orduak esaten. Geruago ta geruago, ibiltaldi luzia egin ondorean, erantzupen berdiña entzuten zuben.

Etzioten esango garbi garbi, iru ordu zeukazkiela oraindik, ori ez; bañan, guchi gora bera, alde alde, esate batez..... iru ordu bearko zitubela bai.

Askorekin itz egin zuben, batek ere etziyon garbi erantzun. Bai bat, bai jator bat etzuten entzun. Zenbat, galdetzen bazuben. etziyon iñork, onenbeste, erantzungo.

Bañan erantzupenetan entzugarriena emakume batek eman zion.

Negarrez zegon baserri bateko atietan, urtietan sartutako emakume gajo bat.

Semia galdu zubela, zerbait ulertu zuben Aquilino'k eta oso kuspitsu galdetu zion:

—¿Semia il al zaizu?

—Ez dakit bada il edo zer egin duben, bañan juan dan aztelenian lurperatu, *enterratu* zuten.

—¡.....!

KAITANO